



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

## MÁSTER OFICIAL "DERECHOS FUNDAMENTALES Y PODERES PÚBLICOS"

*Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco*

Director: Iñaki Lasagabaster Herrarte (Catedrático de Derecho Administrativo)

El máster de Derechos Fundamentales y Poderes Públicos, es un máster de investigación. Por tal hay que entender un máster que no va dirigido al ejercicio profesional, lo que no impide que se impartan asignaturas que tienen una evidente relación con la práctica, así es el caso de los recursos que para la protección de los derechos fundamentales se pueden plantear ante los tribunales internos, jurisdicción ordinaria y Tribunal Constitucional, o ante las instituciones internacionales o europeas.

### I.- LENGUA. Euskera y castellano

Los materiales de la enseñanza en euskera están en su lengua original. A ellos se añadirán materiales en euskera cuando estén así editados. El alumnado que curse el máster en euskera elaborará su trabajo en esta lengua, incluido el Trabajo de Fin de Máster. Las relaciones con la Administración y el profesorado serán también en esta lengua.

### II.- ASIGNATURAS

El máster tiene dos partes fundamentales. En la primera de ellas se trata de asignaturas definidas como obligatorias, que todas las personas matriculadas deben realizar necesariamente. A continuación se realizará una breve descripción de estas asignaturas.

1) En primer lugar estaría la teoría general, mediante la cual se quieren dar las claves fundamentales sobre los derechos fundamentales, su régimen jurídico, así como el estudio de las fuentes del Derecho, la relación entre las diferentes normas, donde necesariamente hay que tener en cuenta el Derecho de la Unión Europea, los Tratados internacionales, especialmente de protección de los derechos fundamentales y la normativa interna, sea ésta estatal, autonómica o de ámbito inferior, que pueda afectar también a los derechos fundamentales.

También se analizan los diferentes procedimientos de defensa y de intervención que las personas disponen frente a la actuación de los diferentes poderes públicos, entendiendo por tales tanto el poder legislativo como las diferentes Administraciones o el propio poder judicial.

2) La participación política es la segunda materia que se analiza. La participación política es el fundamento de la democracia, en ella se analizan tanto aquellos elementos generales y más evidentes de la participación como puede ser el régimen parlamentario, los derechos de los parlamentarios, la representación política y su concepto, la incidencia o afectación de esta representación por el derecho penal y la intervención judicial, la prohibición de partidos políticos o los derechos de voto de las personas extranjeras.

Junto a este planteamiento general se realiza también un análisis de aspectos de la participación puntuales más vinculados a la actuación de las Administraciones públicas. Se trata en este caso de analizar los diferentes instrumentos jurídicos que el ordenamiento jurídico prevé cuando la ciudadanía persigue participar en decisiones administrativas que le afectan directamente y respecto de las cuales se entiende que debe pronunciarse. Esto tiene una importancia especial en materia de ordenación del territorio, urbanismo y medio ambiente. Piénsese en el Convenio de Aarhus y las exigencias que el mismo establece en esta materia.

3) Una tercera materia es la del derecho de extranjería, materia hasta hace no muchos años merecedora de muy escasa atención por la doctrina jurídica, pero que en este momento adquiere un papel muy relevante tanto en la realidad política y social como, lógicamente, en la jurídica. Aquí se analiza el régimen jurídico de la extranjería, los derechos de las personas extranjeras, la estancia y residencias de las personas extranjeras, la política europea en esta materia y algunos derechos en concreto especialmente el de reagrupación familiar.

4) La libertad personal constituiría la cuarta materia que forma parte de estos créditos obligatorios, materia vinculada al Derecho penal y que persigue determinar aquellos aspectos fundamentales del Derecho penal que sirven para la protección de los derechos fundamentales.

5) Las dos materias restantes que se definen como obligatorias tienen una previsión de créditos menor y son el derecho a la intimidad (3 créditos) y el régimen jurídico de las minorías (3 créditos).

Al hablar de intimidad se tratará especialmente del régimen jurídico de la intimidad en su relación con la libertad de prensa, el derecho a la intimidad de los servidores públicos y la intimidad de los menores de edad, entre otros. Se analizarán así mismo los criterios de ponderación que los tribunales han barajado en las diferentes jurisdicciones, tanto europeas como internas, para determinar la prevalencia del derecho a la información en relación con el derecho a la intimidad. Al mismo tiempo se estudia también la relación entre la libertad de expresión y los denominados delitos de odio.

En lo que hace referencia al derecho de minorías se hace una introducción sobre esta cuestión e el ámbito europeo, precisándose después especialmente ese régimen jurídico en relación con el derecho lingüístico.

6) En la optatividad se prevén diferentes materias. Por una parte estaría el medio ambiente, medio ambiente I y medio ambiente II. En esta materia se

estudiarían elementos básicos de la ordenación del territorio y del medio ambiente propiamente dicho. Junto a la teoría general se estudia el régimen jurídico de algunos de estos sectores. En concreto, el régimen jurídico de los espacios naturales, la biodiversidad, aguas, residuos, transgénicos, nanotecnologías, suelos contaminados y derechos específicos como los relacionados con el derecho de acceso y la participación.

7) Otra línea de especialidad que se oferta es la protección de los derechos fundamentales. Para ello se analiza la protección de los derechos fundamentales en el ámbito interno, en especial la protección en vía contencioso-administrativa, y más destacadamente el recurso de amparo y su régimen jurídico. En el ámbito internacional se estudiarían los aspectos generales de la protección internacional de los derechos fundamentales según los diferentes tratados internacionales que prevén mecanismos para ello. A su vez se estudia también el mecanismo de protección del Tribunal Europeo de Derechos Humanos, el valor de su jurisprudencia y la forma de presentación de recursos ante el mismo.

8) Finalmente se acaba esta descripción con la asignatura derechos sociales. En ella se analiza esta categoría jurídica, su constitucionalización, el problema de la vinculación del legislador y la regulación concreta que existe de los mismos, en especial la Renta de Garantía de Ingresos o regulaciones similares.

### III.- SEMIPRESENCIALIDAD

Al ser un curso semipresencial los trabajos se remiten por vía electrónica, facilitándose al alumnado en cada una de las materias una serie de lecturas, jurisprudencia y labores en concreto que deben desarrollar semanalmente y remitir puntualmente al profesor responsable de cada materia.

En los meses de abril y mayo tiene lugar el desarrollo presencial del máster. Para el desarrollo de esta presencialidad se realizan jornadas sobre algunas materias en concreto, así como charlas de profesorado invitado. Los alumnos también tendrán la obligación de presentar algunos de los trabajos realizados, así como el índice, bibliografía y líneas fundamentales del trabajo de fin de máster.

El trabajo de fin de máster deberá remitirse necesariamente por vía telemática antes del 15 de septiembre, con objeto de poder realizar la valoración del mismo por el tribunal correspondiente. La presencialidad significará también el desarrollo por parte de los profesores responsables de cada asignatura de los aspectos fundamentales de la misma, aclarando su alcance y especialmente a la luz de los trabajos remitidos por el alumnado. La presencialidad en el máster puede verse realizada, en casos excepcionales, mediante conexión vía internet, videoconferencia o skipe, o por los medios que puedan considerarse suficientes para cumplir con los requerimientos que la enseñanza del máster presenta.

### ***Asignaturas***

TEORÍA GENERAL, FUENTES, ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

DERECHOS HUMANOS Y PARTICIPACIÓN POLÍTICA

DERECHOS HUMANOS Y EXTRANJERÍA

DERECHOS HUMANOS Y LIBERTAD PERSONAL

DERECHOS HUMANOS E INTIMIDAD

DERECHOS HUMANOS, CULTURA Y MINORÍAS

### ***Optativas***

DERECHOS HUMANOS Y MEDIOAMBIENTE I

DERECHOS HUMANOS Y MEDIOAMBIENTE II

DERECHOS HUMANOS Y TUTELA JUDICIAL EN EUROPA

DERECHOS HUMANOS Y TUTELA JUDICIAL, JURISDICCIÓN  
CONSTITUCIONAL Y JURISDICCIÓN CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVA

### ***Contacto***

Unai Aberasturi: unai.aberasturi@ehu.eus

Nieves Arrese: nieves.arrese@ehu.eus

José Ignacio Cubero: joseignacio.cubero@ehu.eus

### ***Página web***

<https://www.ehu.eus/es/web/derechosfundamentales/aurkezpena>

<http://www.ikasmirak.eus/ikasmirak/>



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

## “OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA BOTERE PUBLIKOAK” MASTER OFIZIALA

*Euskar Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco*  
Zuzendaria: Iñaki Lasagabaster Herrarte (Administrazio Zuzenbidean  
Katedraduna)

Oinarrizko Eskubideak eta Botere Publikoak masterra ikerketa master bat da. Horrek esan nahi du ez dela jarduera profesionala egikaritzera zuzenduriko master bat, nahiz eta jarduera horrekin harreman zuzena daukaten irakasgaiak ere ematen diren, adibidez, oinarrizko eskubideak babesteko barne auzitegien, auzitegi arruntak edo Konstituzio Auzitegia, bai eta nazioarteko edo europar auzitegien aurrean tarteratu daitezkeen errekurtsoen azterketa.

### I.- HIZKUNTZA. Euskaraz eta gazteleraz.

Euskarazko irakaskuntzan erabiliko diren materialak jatorrizko hizkuntzan egongo dira. Hauei euskaraz idatzitako materialak gehituko zaizkio horrela editatuta daudenean. Masterra euskaraz egiten duen ikasleak bere lana euskaraz garatuko du, Master Bukaerako Lana barne. Administrazioarekin eta irakasleekin dituen harremanak euskaraz garatu ahal izango ditu.

### II.- IRAKASGAIAK.

Masterrak bi atal ditu bereziki. Lehenengo atalean derrigorrezko irakasgaiak landuko dira, ikasle guztiek gauzatu beharko dituztenak. Irakasgai hauen deskribapena:

1) Lehenengo, teoria orokorra egongo litzateke. Hemen sartuko lirateke honako hauek: oinarrizko eskubideen teoria orokorra, araubide juridikoa, Zuzenbidearen iturrien gaia, arau ezberdinen arteko harremanak, Europar Batasuneko Zuzenbidea barne, Nazioarteko Hitzarmenak, oinarrizko eskubideen babesa eta giza eskubideen gaia ukitu dezakeen barne araubidea, estatukoa, autonomikoa edota lurralde eremu txikiagokoa.

Aldi berean, botere publikoen jardueraren aurrean, botere legegile, betearazle edo judiziala delarik, herritarrak dituen babeserako prozedura edo tresnak aztertuko dira.

2) Parte-hartze politikoa da aztertuko den bigarren gaia. Parte-hartze politikoa demokraziaren oinarrietariko bat da. Bertan parte-hartzearen eduki

garrantzitsuenak eta orokorrenak aztertzen dira, parlamentarien eskubideak, ordezkaritza politikoa eta bere kontzeptua, ordezkaritza honetan zuzenbide penalak eta jarduera judizialak daukan eragina, alderdi politikoen debekatzea edo atzerritarren bozkatzeko eskubidea.

Planteamendu orokor honekin batera Administrazio publikoen jarduerarekin lotura handiagoa duten parte hartzearen zenbait alderdi zehatzen analisia ere egingo da. Helburua kasu honetan herritarrak administrazio-erabakietan parte hartzea nahi duenean berari zuzenean eragiten diotelako eta bere iritzia entzuna izan dadin ordenamendu juridikoak aurreikusten dituen baliabide juridikoen azterketa da. Horrek garrantzia berezia du lurralde-antolamenduan, hirigintzan eta ingurumenean. Kontuan izan behar Aarhus Hitzarmena eta gai horretan jasotzen dituen eskakizunak.

3) Hirugarren eremua atzerritarren zuzenbidea da, orain urte gutxi arte doktrina juridikoak arreta gutxi eskaini arren, gaur egun paper nabarmena hartu duenak bai errealitate politikoan eta sozialean, bai eta logikoki, juridikoan ere. Hor atzerritartasunaren erregimen juridikoa, atzerritarren eskubideak, atzerritarren egonaldia eta egoitza, europar politika gai horretan eta eskubide zehatz batzuk, besteak beste, familia berrelkartzea aztertuko dira.

4) Nahitaezko kreditu hauen laugarren atala pertsonaren askatasuna da, Zigor zuzenbidearekin lotutakoa eta oinarrizko eskubideen babeserako baliagarriak diren Zigor zuzenbidearen oinarrizko alderdiak zehazteko balio duena.

5) Nahitaezko azken bi gaiak kreditu gutxiago dituzte eta intimitaterako eskubidea (3 kreditu) eta gutxiengoaren erregimen juridikoa (3 kreditu) dira.

Intimitatearen analisisan bereziki ikasiko dira intimitatearen erregimen juridikoa prentsa-askatasunarekin duen harremanean, zerbitzaile publikoen intimitaterako eskubidea eta adingabekoen intimitatea, besteak beste. Era berean informaziorako eskubideak intimitaterako eskubidearekiko duen lehentasuna zehazteko jurisdikzio ezberdinetako auzitegiek, europarrek zein barnekoek, haztapenerako erabiltzen dituzten irizpideak aztertuko dira. Halaber, adierazpen-askatasunaren eta gorroto-delitu direlakoaren arteko harremana ere ikasiko da.

Gutxiengoaren eskubideari dagokionez, europar eremuan gaiari buruzko sarrera egin ondoren, hizkuntz-eskubidearen erregimen juridikoa aztertuko da bereziki.

6) Hautazkoen multzoan gai ezberdinak aurreikusi dira. Batetik, ingurumena; ingurumena I eta ingurumena II. Gai horretan lurralde-antolamenduaren eta ingurumenaren oinarrizko elementuak ikasiko dira. Teoria orokorarekin batera arlo jakin batzuen erregimen juridikoa ere aztertuko da. Zehazki, gune naturalak, bioaniztasuna, urak, hondakinak, transgenikoak, nanoteknologiak, kutsatutako lurrak eta sarbide- eta parte hartze-eskubidearekin lotutako eskubide zehatzak.

7) Eskainitako beste espezialitate-ildoak oinarrizko eskubideen babesari buruzkoa da. Horretarako oinarrizko eskubideen babesa barne-eremuan, bereziki administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, eta modu nabarmenagoan babes-errekurtsioa eta bere erregimen juridikoa aztertuko dira. Nazioarteko

eremuan, nazioarteko itunek aurreikusten dituzten baliabideen arabera, oinarrizko eskubideen nazioarteko babesaren alderdi orokorrak aztertuko dira. Era berean, Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren babes-mekanismoa ere ikasiko da, bai eta jurisprudentzia horren balioa eta bere aurrean errekurtsoak aurkezteko modua ere. Nazioarteko eremuan oinarrizko eskubideen nazioarteko babesaren ezaugarri orokorrak azalduko dira, horretarako tresnak aurreikusten dituzten nazioarteko hitzarmenak aztertuz. Aldi berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren babes tresnak aztertuko dira, bere jurisprudentziaren balioa eta bere aurrean errekurtsoak tarteratzeko erak.

8) Azkeneko irakasgaia eskubide sozialei buruzkoa da. Bertan kategoria hau aztertuko da, konstituzioan nola jasotzen den, legegilea nola lotzen duen eta arau zehatzetan nola arautzen den, batez ere Diru-sarreraren Berme Errentaren edo antzekoen araubidea.

### III. ERDI-PRESENTZIALTASUNA

Kurtso erdi-presentziala izanik lanak bide elektronikotik igorriko dira. Horretarako ikasleari irakurketa batzuk, jurisprudentzia eta jarduerak igorriko zaizkio, astero landu beharko dituenak eta dagokion irakasleari epean bidali beharko zaizkionak.

Apirila eta maiatza bitartean masterraren atal presentziala edo zuzena garatuko da. Atal honetan landu diren gaien inguruko jardunaldiak gauzatuko dira, eta baita kanpotik etorritako irakasleek emandako hitzaldiak. Ikasleek aurretik egindako lanak aurkezteko betebeharra izango dute eta Master Bukaerako Lanaren aurkibide, bibliografia eta irizpide orokorrak zehaztu beharko dituzte.

Master Bukaerako Lana irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da derrigorrez, dagokion ebaluazio batzordeak lana baloratu ahal izateko. Kurtsoaren atal presentzialak suposatuko du irakasle bakoitzak dagokion irakasgaiaren eduki garrantzitsuenak azalduko dituela, batez ere ikasleek igorritako lanen harira. Erdi-presentzialtasun hau, oso kasu berezietan, justifikaturik egon beharko dutenak, Internet, bideokonferentzia, skype edo bestelako neurrien bidez gauzatu ahal izango da, beti ere masterrak galdatzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

#### ***Irakasgaiak***

TEORIA OROKORRA, ITURRIAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

GIZA ESKUBIDEAK ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA

GIZA ESKUBIDEAK ETA ATERRITARTASUNA

GIZA ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PERTSONALA

GIZA ESKUBIDEAK ETA INTIMITATEA

GIZA ESKUBIDEAK, KULTURA, GUTXIENGOAK

## **Hautazkoak**

GIZA ESKUBIDEAK ETA INGURUGIROA I

GIZA ESKUBIDEAK ETA INGURUGIROA II

GIZA ESKUBIDEAK ETA BABES JUDIZIALA EUROPAN

GIZA ESKUBIDEAK ETA BABES JUDIZIALA, KONSTITUZIO JURISDIKZIOA  
ETA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI JURISDIKZIOA

## ***Kontaktua***

Unai Aberasturi: unai.aberasturi@ehu.eus

Nieves Arrese: nieves.arrese@ehu.eus

José Ignacio Cubero: joseignacio.cubero@ehu.eus

## ***Web orrialdea***

<https://www.ehu.eus/es/web/derechosfundamentales/aurkezpena>

<http://www.ikasmirak.eus/ikasmirak/>